Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

| **Concurso vacantes Técnico RPT Ayuntamiento de Leioa** | **Leioako Udaletxean LZn hutsik dauden Teknikari lanpostuen lehiaketa** |
| --- | --- |
| Mediante Decreto de Alcaldía nº 1831 de fecha 29 de julio de 2016 se aprobó la convocatoria para la provisión de varios puestos de trabajo, vacantes en la RPT del Ayuntamiento, así como las bases que han de regir dicha convocatoria, lo que se hace público en cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 30 de la Ley 6/89 de Función Pública Vasca y demás disposiciones legales vigentes. | 2016ko uztailaren 29(e)ko Alkatearen 1831. Dekretuaren bitartez, Udaleko Lanpostu Zerrendan hutsik zeuden lanpostu batzuk betetzeko deialdia eta deialdi horretarako oinarriak onartu egin ziren, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 30. artikuluak eta gainerako lege-mailako xedapenek diotenaren arabera argitaratuz. |
| BASES que han de regir el concurso específico para la provisión de dos puestos de Técnico, vacantes en la RPT y reservadas a personal funcionario de carrera.<br><br>Primera.- Objeto<br><br>Constituye el objeto de las bases de la presente convocatoria la provisión definitiva, mediante concurso específico de méritos, de dos puestos de Técnico, reservados a funcionarios de carrera de Administración Local. Se describen estas dotaciones a proveer en las bases específicas de cada convocatoria dentro del Anexo 1 y 2.<br><br>Segunda.-Requisitos de participación.<br><br>1. Podrá tomar parte el personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de Leioa y de cualquier otra Administración Local que, en la fecha de publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco, se hallen en situación de servicio activo, servicios especiales, excedencia para el cuidado de familiares, excedencia forzosa o en servicios en otras administraciones públicas, | OINARRIAK, LZn hutsik dauden eta karrerako funtzionarioentzat diren teknikari-lanpostu bi betetzeko berariazko lehiaketa arautu behar dutenak.<br><br>Lehenengoa.- Helburua.<br><br>Deialdi honen oinarrien helburua Toki Administrazioko karrerako funtzionarioentzat diren bi teknikari-lanpostu betetzea da, meritu-lehiaketa espezifikoaren bidez. Bete beharreko postu horiek deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan deskribatzen dira, 1. eta 2. eranskinen barruan.<br><br>Bigarrena.- Parte hartzeko betekizunak<br><br>1. Leioako Udaleko eta beste edozein Toki Administraziotako karrerako funtzionarioek parte hartu ahalko dute, baldin eta deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denean zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan, senideak zaintzeko eszedentzian, nahitaezko eszedentzian edo beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuak |

| | |
|---|---|
| y cumpla los requisitos determinados en la Relación de Puestos de Trabajo, las condiciones establecidas en el Reglamento de Provisión de Puestos de Trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas aprobado por Decreto 190/2004 de 13 de octubre, y en las Bases de la presente convocatoria. No podrá tomar parte el personal que se encuentren en alguno de los supuestos previstos en el art. 10.3 y 10.4 del Reglamento de Provisión de Puestos de Trabajo del Personal Funcionario de las Admones. Públicas Vascas. | ematen ari badira eta lanpostu-zerrendan zehaztutako betekizunak eta Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudian (urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onetsia) ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Ezingo dute parte hartu Euskal Herri Administraziotako Funtzionarioen Lanpostuak Betetzeko Araudiaren 10.3 eta 10.4 artikuluan xedatutako kasu batean daudenek. |
| El cumplimiento de esos requisitos deberá mantenerse hasta la toma de posesión de los puestos a adjudicar. Aquellos participantes que no mantengan el cumplimiento de los requisitos de participación, no podrán tomar posesión del puesto adjudicado. | Betekizun horiek adjudikatu beharreko postuez jabetu arte betetzen jarraitu behar dute. Parte hartzeko betekizunak betetzeari uzten dioten parte-hartzaileak ezingo dira adjudikatutako postuaz jabetu. |
| 2. No podrá tomar parte en los concursos:<br>a) El personal funcionario que haya tomado posesión en los dos años anteriores en un puesto obtenido en concurso, con independencia de la administración de origen o del cuerpo desde el que participe. Este límite temporal se exceptúa cuando el personal haya perdido la adscripción al puesto obtenido en concurso.<br>b) El personal funcionario que se encuentre en suspensión firme de funciones, mientras dure esta situación.<br>c) El personal que, encontrándose en excedencia voluntaria por interés particular o por agrupación familiar, no haya permanecido el tiempo mínimo exigido para reingresar. | 2. Honako hauek ezingo dute lehiaketetan parte hartu:<br>a) Aurreko bi urteetan lehiaketan lortutako postu batez jabetu diren funtzionarioek, jatorrizko administrazioa edo parte hartzen duen kidegoa edozein dela ere. Denbora-muga hori salbuetsi egingo da langileak lehiaketan lortutako posturako atxikipena galdu duenean.<br>b) Eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioek, egoera horrek irauten duen bitartean.<br>c) Interes partikularrarengatik edo familia elkartzeagatik borondatezko eszedentzian dauden eta berriro sartzeko eskatzen den gutxieneko denboraz geratu ez diren langileek. |
| Tercera.-Plazo de presentación de solicitudes. | Hirugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea. |
| 1. Las solicitudes para tomar parte en este concurso, dirigidas a la Sra. Alcaldesa de Leioa, se presentarán en las Oficinas de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Leioa, en el plazo de 15 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el «Boletín Oficial del País Vasco». También podrán presentarse en cualquiera de las oficinas a las que se refiere el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. | 1. Lehiaketa honetan parte hartzeko eskaerak, Leioako alkateari zuzenduak, Leioako Udaleko Herritarrentzako Arreta Bulegoetan aurkeztuko dira, 15 egun baliodunеko epean, deialdia «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluak aipatzen duen edozein bulegotan aurkeztu ahalko dira. |

| | |
|---|---|
| 2. Una vez transcurrido el periodo de presentación de solicitudes, las instancias formuladas serán vinculantes para los solicitantes. | 2. Eskaerak aurkezteko aldia igarotakoan, egindako eskabideak lotesleak izango dira eskatzaileentzat. |
| 3. Terminado el plazo de presentación de instancias, la Alcaldía Presidencia aprobará la lista provisional de los/as aspirantes admitidos/as y excluidos/as. Dicha resolución se hará pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. | 3. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Alkatetza-Udalburutzak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Ebazpen hori Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da. |
| Tal relación expresará, con referencia a cada uno/a de los/as aspirantes excluidos/as, las causas que hubieran motivado su exclusión, concediendo un plazo de 10 días hábiles para reclamar contra tal exclusión y subsanar las faltas o documentos que hubieran motivado la misma. Transcurrido el citado plazo de reclamaciones, la autoridad que hubiera aprobado la resolución de admisión y exclusión de aspirantes resolverá las reclamaciones presentadas y se hará público en la forma indicada en el párrafo anterior. | Zerrenda horretan, baztertutako hautagai bakoitzari dagokionez, baztertzeko arrazoiak azalduko dira, eta 10 egun balioduneko epea emango da bazterketa horren aurka erreklamatzeko, baita bazterketa eragin duten akatsak konpondu edo agiriak aurkezteko. Erreklamazioak egiteko epe hori igarotakoan, hautagaiak onartzeko eta baztertzeko ebazpena onetsi duen agintaritzak aurkeztutako erreklamazioak ebatziko ditu, eta aurreko paragrafoan adierazitako moduan emango da jakitera. |
| Cuarta.-Valoración y acreditación de méritos. | Laugarrena.- Merituen balioespena eta egiaztapena. |
| 1. Las dotaciones que tengan asignada una fecha de preceptividad del perfil lingüístico ya vencida serán adjudicadas a los interesados que tengan acreditado dicho requisito. | 1. Hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data bat esleituta daukaten lanpostuak, hori igaro denean, betekizuna egiaztatu duten interesdunei adjudikatuko zaizkie. |
| 2. A la instancia se acompañará necesariamente la declaración en la que se relacionen los méritos alegados, así como los documentos suficientemente acreditativos de los mismos. No podrán valorarse méritos distintos a los alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias, ni aquellos otros que, alegados dentro de dicho plazo, sean justificados posteriormente. Aquellos méritos alegados dentro del plazo de presentación de instancias pero justificados posteriormente, podrán ser valorados si las acreditaciones de dichos méritos no estaban a disposición de las personas interesadas por causas no imputables a las mismas y dichas personas hubiesen solicitado los correspondientes justificantes dentro del plazo de presentación de instancias. | 2. Eskabidearekin batera, alegatutako merituak zerrendatzen dituen adierazpen bat aurkeztu beharko da, baita horiek behar bezala egiaztatzen dituzten agiriak ere. Ezin izango da balioetsi eskabideak aurkezteko epean alegatu eta egiaztatu ez den meriturik, ez eta, esandako epe horretan adierazita ere, geroago egiaztatu denik ere. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatzen diren baina gero egiaztatzen diren merituak balioetsi ahal izango dira baldin eta meritu horiek interesdunen esku ez bazeuden haiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik eta pertsona horiek, eskabideak aurkezteko epearen barruan, dagozkien egiaztagiriak eskatu badituzte. |

| | |
|---|---|
| 3. El procedimiento de valoración de méritos se realizará en dos fases que figuran en los Anexos. En una se valorarán los méritos generales y en otra se valorarán los méritos específicos. | 3. Merituak balioesteko prozedura bi fasetan egingo da; eranskinetan azaltzen dira. Batan, meritu orokorrak balioetsiko dira, eta bestean, meritu espezifikoak. |
| 4. Los méritos se valorarán con referencia a la fecha del cierre del plazo de presentación de solicitudes, que asimismo será la fecha de referencia para el cumplimiento de los requisitos exigidos. Lo anterior se exceptúa para el conocimiento del euskera, en cuyo caso la fecha de referencia se diferirá hasta la que se determine para la realización de la prueba de acreditación de perfil lingüístico. | 4. Merituak balioesteko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den data izango da kontuan; data horixe hartuko da erreferentziatzat eskatutako betekizunak bete diren aztertzeko. Aurrekoa alde batera utziko da euskararen jakintzarako; hain zuzen, kasu horretan erreferentziako data hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiteko zehazten den egunera arte luzatuko da. |
| 5. Todos los cómputos de meses a que obliguen los baremos de la presente convocatoria se realizarán con arreglo a la siguiente fórmula: | 5. Deialdi honetako baremoek eskatzen dituzten hilabeteen zenbaketa guztiak formula honen arabera egingo dira: |
| (Número de días/365) x 12, despreciando decimales. | (Egun-kopurua/365) x 12, dezimalak aintzat hartu gabe. |
| Quinta.-Comisión de valoración. | Bosgarrena.- Balioespen-batzordea |
| Al objeto de valorar las pruebas y méritos correspondientes a la presente convocatoria, se constituirán una Comisión de valoración. La Comisión de valoración estará constituida por un mínimo de cuatro miembros, designados por la Alcaldía, de entre los que uno actuará como presidente y otro como secretario. A la vez se designarán los suplentes respectivos. Formará parte de dicha comisión un representante del IVAP a los solos efectos de realización de la prueba de acreditación de perfil lingüístico. | Deialdi honi dagozkion probak eta merituak balioeste aldera, balioespen-batzorde bat eratuko da. Balioespen-batzordea gutxienez lau kidek osatuko dute, Alkatetzak izendatuek; horietako bat batzordeburua izango da, eta beste bat, idazkaria. Aldi berean, bakoitzaren ordezkoak izendatuko dira. Batzorde horretan HAEEko ordezkari bat egongo da, hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko proba egiteko soilik. |
| Todos los miembros de la comisión de selección deberán poseer una titulación de igual o superior nivel académico al de la exigida para la provisión de los puestos convocados. Mediante Decreto publicado en el tablón de anuncios se hará pública la designación de los miembros de la Comisión de valoración, así como sus suplentes. | Hautespen-batzordeko kide guztiek igarritako lanpostuak betetzeko eskatzen den ikasketa-maila bereko edo altuagoko titulu bat eduki behar dute. Iragarki-taulan argitaratutako dekretuaren bidez emango da jakitera balioespen-batzordeko kideen eta horien ordezkoen izendapena. |
| Los miembros de la Comisión de valoración deberán abstenerse de intervenir, notificándolo al órgano competente, y los aspirantes podrán recusarlos, cuando concurran las circunstancias previstas para estos supuestos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las | Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean kasu horietarako xedatutako inguruabarrak gertatzen direnean, balioespen-batzordeko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, organo |

| | |
|---|---|
| Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. | eskudunari jakinaraziz, eta hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte. |
| Sexta.- Propuesta de adjudicación. | Seigarrena.- Adjudikazio-proposamena. |
| 1. La Comisión de Valoración efectuará la propuesta de adjudicación que deberá recaer sobre quien haya obtenido mayor puntuación final siempre que ésta sea igual o superior a la puntuación mínima exigida en las bases de convocatoria. | 1.Balioespen-batzordeak egingo du adjudikazio-proposamena; amaierako puntuazio altuena lortu duenarentzat izan behar du, baldin eta deialdiaren oinarrietan eskatutako gutxieneko puntuazioa edo hori baino altuagoa bada. |
| 2. En el supuesto de empate en la puntuación del conjunto del concurso, se acudirá para dirimirlo a los criterios siguientes: | 2. Lehiaketa osoaren puntuazioan berdinketarik egonez gero, honako irizpide honetara joko da ebazteko: |
| a) A los méritos específicos ordenados según el orden expresado en las bases de la convocatoria, de mayor a menor puntuación. Cuando los méritos tengan establecida la misma puntuación, según el orden expresado en la convocatoria. | a) Deialdiaren oinarrietan adierazitako hurrenkeraren arabera ordenatutako meritu zehatzen arabera, puntuazio altuenetik baxuenera. Merituek puntuazio berbera daukatenean, deialdian adierazitako hurrenkeraren arabera. |
| b) Si persiste el empate se dirimirá según los criterios de desempate de los concursos de méritos generales | b) Berdinketak egonkor baldin badirau, meritu orokorren lehiaketetan hausteko ezarritako irizpideen arabera erabakiko da. |
| c) De persistir el empate se acudirá, por este orden, a la mayor antigüedad como personal funcionario de carrera en el Cuerpo o Escala desde el que se concursa, a la mayor antigüedad como personal funcionario de carrera, a la mayor antigüedad en el último puesto definitivo y, a la mayor antigüedad en la Administración. | c) Berdinketak baldin badirau, honako irizpide hauetara joko da: antzinatasunik handiena karrerako funtzionario gisa (lehiatzen den Talde edo Eskalan), antzinatasunik handiena azken behin betiko lanpostuan, eta antzinatasunik handiena Administrazioan. |
| d) Si se precisa algún criterio de desempate adicional, la comisión de valoración lo determinará, de acuerdo con el principio de mérito. | d) Berdinketa hausteko beste irizpide gehigarriaren bat behar bada, balioespen-batzordeak erabakiko du, meritu-printzipioaren arabera. |
| 3. La propuesta de la Comisión de Valoración se hará pública, mediante acuerdo de la misma, en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Leioa. Contra dicho acuerdo el personal concursante podrá reclamar, en el plazo de diez días hábiles, desde el día siguiente al de su publicación. Estas reclamaciones serán resueltas por la Comisión de | 3. Balioespen-batzordearen proposamena Leioako Udalaren iragarki-taulan emango da jakitera, haren erabakiaren bidez. Lehiaketan parte hartu duten langileek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, hamar egun balioduneko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Balioespen-batzordeak |

| | |
|---|---|
| Valoración. El plazo para desistir de la participación de la totalidad del concurso finalizará el día inmediatamente anterior a la finalización del plazo para reclamaciones. | ebatziko ditu erreklamaziook. Lehiaketa osoko partaidetzan atzera egiteko epea erreklamazioetarako epea bukatu aurreko egunean bukatuko da. |
| Séptima.-Resolución. | Zazpigarrena.- Ebazpena. |
| 1. Resueltas, en su caso, las reclamaciones contra la propuesta publicada, la Comisión de Valoración elevará propuesta de adjudicación del puesto ofertado al órgano competente. | 1. Argitaratutako proposamenaren aurkako erreklamazioak, halakorik egonez gero, ebatzitakoan, balioespen-batzordeak eskainitako postua adjudikatzeko proposamena egingo dio organo eskudunari. |
| 2. Recibida la propuesta, el órgano competente, previa su aprobación, ordenará su publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento . | 2. Proposamena jasotzen duenean, organo eskudunak, onetsi ostean, Udalaren iragarki-taulan argitaratzeko aginduko du. |
| 3. El puesto convocado solo podrá ser declarado desierto, si nadie lo ha solicitado o si habiéndolo solicitado nadie ha obtenido la puntuación mínima prevista. | 3. Iragarritako lanpostua inork eskatu ez badu edo, eskatuz gero, xedatutako gutxieneko puntuazioa inork lortu ez badu soilik geratuko da hutsik. |
| 4. La adjudicación de alguno de los puestos de la presente convocatoria implicará el cese en el puesto de trabajo anterior. Los adjudicatarios deberán tomar posesión en el puesto obtenido en concurso perdiendo la titularidad, en su caso, del puesto anterior salvo que, antes de finalizar el plazo de toma de posesión, se hubiera obtenido otro destino mediante convocatoria pública, por incapacidad sobrevenida, por pasar a una situación diferente a la de servicio activo, o por otras causas excepcionales debidamente justificadas apreciadas por el órgano convocante. | 4. Deialdi honetako posturen bat adjudikatzeak aurreko lanpostua uztea ekarriko du. Adjudikaziodunek lehiaketan lortutako lanpostuaz jabetu beharko dute eta, horrenbestez, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko dute, horrelakorik izanez gero, ez badute beste destinorik lortu lanpostuaz jabetzeko epea amaitu baino lehen, deialdi publikoaren bidez, gerora agertutako ezintasunagatik, zerbitzu aktiboaz bestelako egoera batera igarotzeagatik edo organo iragarleak bidezkotzat jotzen dituen aparteko arrazoiengatik. |
| 5. El cese en el puesto de adscripción deberá efectuarse dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. Excepcionalmente este plazo podrá ser prorrogado por el órgano competente en materia de personal, cuando concurran circunstancias debidamente motivadas. A quien se le hubiera diferido el cese en el puesto de origen por razones de servicio, se le computará el tiempo hasta el cese efectivo, como desempeñado en el nuevo puesto. | 5. Lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodun epean utzi beharko da atxikipeneko lanpostua. Salbuespenez, langileen arloko organo eskudunak epea luzatu ahalko du, behar bezala arrazoitutako inguruabarrak daudenean. Zerbitzuari lotutako arrazoiak direla medio jatorrizko postua uzteko epea luzatu zaionari lanpostu berrian egon balitz bezala zenbatuko zaio benetan utzi arte igarotako denbora. |
| 6. La fecha para tomar posesión será al día siguiente del cese. Si la resolución comporta el | 6. Lanpostua utzi eta hurrengo egunean jabetu beharko da lanpostuaz. Ebazpenaren ondorioz |

| | |
|---|---|
| reingreso al servicio activo la toma de posesión deberá efectuarse dentro de los 3 días hábiles siguientes a la publicación de la resolución del concurso. La toma de posesión se diferirá a la fecha de la finalización de los permisos, licencias, vacaciones, o cualquier otra circunstancia en la que se encuentre el personal funcionario que, manteniendo la situación de servicio activo, impida la prestación efectiva de sus servicios. Excepcionalmente, por causas justificadas y debidamente motivadas, el órgano competente podrá acordar suspender el disfrute de los mismos. No obstante, cuando razones organizativas lo aconsejen, en la resolución de adjudicación se podrá determinar la fecha concreta de cese y toma de posesión de todo el personal adjudicatario. | zerbitzu aktibora itzultzen bada, lehiaketaren ebazpena argitaratu eta hurrengo 3 egun baliodunekо epean jabetu beharko da lanpostuaz. Karguaz jabetzeko eguna ezin izango da izan funtzionarioa baimen, lizentzia, opor edo, zerbitzu aktiboan egon arren, zerbitzuak behar bezala ematea eragozten duen inguruabarren batean egon bitartean. Salbuespenez, behar bezala justifikatu eta arrazoitutako kasuetan, baimen horiek eteteko erabakia hartu ahal izango du organo eskudunak. Hala ere, antolaketari lotutako arrazoiek aholkatzen dutenean, adjudikazioaren ebazpenean langile adjudikaziodun guztiek kargua uzteko eta karguaz jabetzeko eguna zehaztu ahal izango da. |
| 7. El personal que obtenga un puesto de trabajo a través de este concurso no podrá participar en otros concursos hasta que hayan transcurrido dos años desde que tomaron posesión en el nuevo puesto. | 7. Lehiaketa honen bidez lanpostu bat lortzen duten langileek ezingo dute bestelako lehiaketetan parte hartu postu berriaz jabetu zirenetik bi urte igaro arte. |
| Octava.-Recursos. | Zortzigarrena.- Errekurtsoak. |
| Contra la presente Decreto y sus bases podrán los interesados interponer recurso de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco» ante la Alcaldía, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. | Interesdunek dekretu honen eta haren oinarrien aurkako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahalko dute, hilabeteko epean «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, alkatetzaren aurrean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan xedatutakoaren arabera. |
| ANEXO I. | I. ERANSKINA. |
| BASES ESPECIFICAS | OINARRI ESPEZIFIKOAK |
| Primera.-Objeto del concurso y puestos que se pueden solicitar: | Lehenengoa.- Lehiaketaren xedea eta eskatu ahal diren postuak: |
| Es objeto de las presentes bases la convocatoria de Concurso de Méritos para la provisión de las siguientes dotaciones: | Oinarri hauen xedea lanpostu hauek betetzeko meritu-lehiaketarako deialdia egitea da: |
| Puesto: TAG SERVICIOS GENERALES.<br>Dotaciones:1 | Lanpostua: ZERBITZU OROKORREN AOT.<br>Postuak: 1 |

<table>
<tr>
<td>Código RPT: 1003/36<br>Unidad Administrativa de destino: 1- Servicios Generales<br>Perfil Lingüístico: 4<br>Fecha de preceptividad: sin determinar<br>Complemento de destino: 29<br>Complemento específico Tramo general<br>: 32436,35 €. Dedicación Especial<br>Plazas vinculadas: Escala Admón. General; Subescala: Técnica<br>Grupo: A<br>Subgrupo: A1<br>Titulación Específica requerida: Ldo. En Derecho<br>Funciones/tareas básicas:<br>– Prestar asesoramiento jurídico a las diferentes áreas y departamentos, siguiendo en cada momento la distribución de trabajo realizada por el/la Secretario/a General. Concretamente:<br>o Prestar asesoramiento jurídico a los departamentos, servicios o entidades sin asesoramiento jurídico propio.<br>o Completar y reforzar la asistencia jurídica a los otros departamentos o áreas, cuando así le sea requerido.<br>– Realizar las gestiones, análisis y propuestas necesarias para la prestación de dicho asesoramiento.<br>– Participar en la gestión de los expedientes del departamento de Secretaría, en especial y del resto de departamentos, prestando asesoramiento jurídico y técnico (urbanismo, personal, patrimonio, etc.) y redactar los informes oportunos.<br>– Prestar apoyo en materia de contratación, siempre que el servicio y/o sus superiores así lo requieran.<br>– Colaborar en el correcto funcionamiento del departamento, respondiendo a los objetivos marcados y organizando, coordinando y supervisando los recursos humanos y económicos asignados, en su caso, para la consecución de dichos objetivos.<br>– Colaborar con el/la Secretario/a en la elaboración de la propuesta del plan de gestión anual y presupuesto del departamento, y ejecución del seguimiento y control de éstos.</td>
<td>LPZ kodea: 1003/36<br>Destinoko administrazio-unitatea: 1.- Zerbitzu orokorrak<br>Hizkuntza-eskakizuna: 4<br>Derrigorrezkotasun-data: zehaztu gabe<br>Lanpostu-mailako osagarria: 29<br>Berariazko osagarria, tarte orokorra:<br>32436,35 €. Arduraldi berezia<br>Lotutako plazak: Eskala: administrazio orokorra; azpieskala: teknikoa<br>Taldea: A<br>Azpitaldea: A1<br>Eskatutako titulu espezifikoa: Zuzenbidean lizentziaduna<br>Oinarrizko funtzioak/zereginak:<br>– Arloei eta sailei aholkularitza juridikoa ematea, une oro idazkari orokorrak egindako lan-banaketari jarraituz. Zehazki:<br>o Berezko aholkularitza juridikorik ez daukaten sailei, zerbitzuei edo erakundeei aholkularitza juridikoa ematea.<br>o Beste sail edo arloentzako aholkularitza juridikoa osatu eta indartzea, eskatzen diotenean.<br>– Aholkularitza hori emateko beharrezkoak diren kudeaketak, analisiak eta proposamenak egitea.<br>– Bereziki Idazkaritza Saileko espedienteen kudeaketan parte hartzea, baita gainerako sailetakoenean ere, aholkularitza juridiko eta teknikoa emanez (hirigintza, langileria, ondarea, etab.), eta egokiak diren txostenak idaztea.<br>– Kontratazioaren arloan laguntza ematea, zerbitzuak edo haren nagusiek eskatzen dutenean.<br>– Sailaren funtzionamendu zuzenean laguntzea, ezarritako helburuei erantzunez eta, hala badagokio, helburu horiek erdiesteko esleitutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak koordinatuz eta gainbegiratuz.<br>– Idazkariari sailaren urteko kudeaketa-planaren proposamena eta aurrekontua egiten eta horien jarraipena eta kontrola gauzatzen laguntzea.</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| – Colaborar en el seguimiento de la tramitación de las subvenciones municipales: bases, acuerdos, proposición de directrices generales, etc.<br>– Colaborar con el/la Secretario/a en lo relativo a procesos electorales<br>– Mantener con los miembros de la corporación y personal municipal los contactos necesarios para el desempeño de sus funciones. Atender, asimismo, las relaciones externas que procedan.<br>– Procurar el mantenimiento actualizado de los propios conocimientos, a través del estudio de la legislación, consulta de boletines, etc.<br>– Sustituir al Secretario/a, cuando sea necesario (bajas, vacaciones, etc.)<br>– Formar parte en los tribunales de selección de personal de acuerdo con la clasificación de su puesto y/o su titulación.<br>– Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, acordes con la cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente. | – Udal diru-laguntzen izapidetzearen jarraipenean laguntzea: oinarriak, erabakiak, jarraibide orokorren proposamena, etab.<br>– Idazkariari hauteskunde-prozesuei dagokienez laguntzea.<br>– Korporazioarekin eta udal-langileekin bere funtzioak betetzeko beharrezkoak diren harremanak izatea. Era berean, egokiak diren kanpo-harremanei arreta ematea.<br>– Bere ezagutzak eguneratuta edukitzen saiatzea, legeria ikasiz, aldizkariak kontsultatuz, etab.<br>– Idazkaria ordeztea, beharrezkoa denean (bajak, oporrak, etab.).<br>– Langileak hautatzeko epaimahaietan egotea, postuaren sailkapenaren edo tituluaren arabera.<br>– Era berean, agintzen dizkioten zereginak gauzatzea, lanpostua eskuratzeko eta betetzeko eskatzen den prestakuntzarekin bat badatoz, arestian aipatutako zereginak alde batera utzi gabe. |
| Segunda.- Puntuaciones, baremo y méritos. | Bigarrena.- Puntuazioak, baremoa eta merituak. |
| La puntuación máxima alcanzable en el presente concurso, es la siguiente:<br><br>**I.- Méritos generales:**<br><br>Máximo a alcanzar 28 puntos de los que se deberán alcanzar un mínimo de 15 puntos para la adjudicación de la vacante. | Lehiaketa honetan lor daitekeen gehienezko puntuazioa hauxe da:<br><br>**I. Meritu orokorrak:**<br><br>Gehienez 28 puntu eskuratu ahalko dira, eta gutxienez 15 puntu eskuratu beharko dira lanpostua adjudikatzeko. |
| *1.-* Se valorará el **trabajo desempeñado**, en relación con las funciones del puesto a cubrir, hasta un máximo de 15 puntos distribuidos de la siguiente forma (exceptuando de esta valoración el trabajo desarrollado en calidad de personal eventual):<br><br>*1.1.-* En los puestos desempeñados con anterioridad en el Ayuntamiento de Leioa: | *1.* **Egindako lana** balioetsiko da, bete beharreko postuko funtzioei dagokienez; gehienez 15 puntu emango dira, modu honetan banatuak (behin-behineko langile gisa egindako lana balioespen honetatik salbuetsiko da):<br><br>*1.1.* Aurretik Leioako Udalean betetako lanpostuetan: |

| | |
|---|---|
| - Por el desempeño de puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso, y cuyo contenido técnico sea idéntico, al del puesto al que se concursa: 0,25 puntos por mes.<br>- Por el desempeño de otro puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso, y cuyo contenido sea similar, al del puesto al que se concursa: 0,20 puntos por mes.<br>- Por el desempeño de cualquier otro puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso al del puesto al que se concursa: 0,15 puntos por mes. | - Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde berekoa den eta eduki tekniko berbera duen lanpostu batean jarduteagatik: 0,25 puntu hilabeteko.<br>- Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde berekoa den eta antzeko edukia duen beste lanpostu batean jarduteagatik: 0,20 puntu hilabeteko.<br>- Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde bereko beste lanpostu batean jarduteagatik: 0,15 puntu hilabeteko. |
| *1.2.-* En los puestos desempeñados con anterioridad en otras Administraciones Locales: | *1.2.* Aurretik beste Toki Administrazioetan betetako lanpostuetan: |
| - Por el desempeño de puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso, y cuyo contenido técnico sea idéntico, al del puesto al que se concursa: 0,065 puntos por mes.<br>- Por el desempeño de otro puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso, y cuyo contenido sea similar, al del puesto al que se concursa: 0,060 puntos por mes.<br>- Por el desempeño de cualquier otro puesto de trabajo del mismo grupo y subgrupo de acceso al del puesto al que se concursa: 0,055 puntos por mes. | - Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde berekoa den eta eduki tekniko berbera duen lanpostu batean jarduteagatik: 0,065 puntu hilabeteko.<br>- Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde berekoa den eta antzeko edukia duen beste lanpostu batean jarduteagatik: 0,060 puntu hilabeteko.<br>- Lehiaketako lanpostuaren talde eta azpitalde bereko beste lanpostu batean jarduteagatik: 0,055 puntu hilabeteko. |
| La valoración del trabajo desarrollado, en atención a los factores relacionados, se llevará a efecto por meses completos siendo necesario, al menos una experiencia acreditada de seis meses, despreciándose las fracciones.<br>La experiencia adquirida en el desempeño de puestos de trabajo en el Ayuntamiento de Leioa la certificará el Área de Personal.<br>La experiencia de quienes hayan ocupado puestos en otras Administraciones Públicas será valorada de acuerdo con la monografía del puesto, o, en su defecto, mediante el documento acreditativo de experiencia laboral expedido por la Administración correspondiente en el que figuren las funciones y tareas desempeñadas. | Egindako lana ebaluatzeko, aipatutako faktoreei dagokienez, hil osoak hartuko dira kontuan; gutxienez sei hilabeteko esperientzia egiaztatua eduki beharko da, eta zatikiak baztertu egingo dira.<br>Lanpostuak Leioako Udalean betetzen lortutako esperientzia Langileria Arloak egiaztatuko du.<br>Postuak beste Administrazio Publiko batzuetan bete dituztenen esperientzia postuaren monografiaren arabera balioetsiko da edo, bestela, kasuan kasuko Administrazioak egindako lan-esperientziaren ziurtagiriaren bidez (bertan, betetako funtzioak eta zereginak jaso behar dira). |
| *2.-* **Titulaciones y grados académicos.** El puesto requiere, para su desempeño, del título académico oficial de Licenciatura/Grado en Derecho. Por la posesión de títulos académicos oficiales (estar en posesión del título o haber | *2.* **Titulu eta gradu akademikoak.** Lanpostua betetzeko, Zuzenbide lizentzia edo gradu delako titulu akademiko ofiziala eduki behar da. Titulu akademiko ofizialak edukitzeagatik (titulua edukitzeagatik edo hori |

| | |
|---|---|
| abonado los derechos para obtenerlo) se otorgará hasta un máximo de 1 punto. También, dentro de este apartado, serán objeto de valoración los másteres, postgrados y títulos propios de las Universidades y Escuelas Universitarias, distintos de los anteriores, todo ello con arreglo al siguiente baremo: | eskuratzeko eskubideak ordainduak izateagatik), gehienez puntu 1 emango da. Era berean, atal honen barruan, unibertsitateetako eta unibertsitate-eskoletako bestelako masterrak, graduondoak eta berezko tituluak balioetsiko dira, hori guztia, baremo honen arabera: |
| 2.1. Cuando guarden relación directa con las funciones propias de los puestos de trabajo que se solicitan: | 2.1. Eskatzen diren lanpostuen berezko funtzioekin zuzeneko harremana dutenean: |
| - Por el título de Licenciatura 1 punto<br>- Por el título de Doctor: 1 punto.<br>- Por el título de Master (de más de 600 horas de carga lectiva): 0,80 puntos<br>- Postgrados (de más de 250 horas de carga lectiva): 0,60 puntos<br>- Postgrados (de hasta 250 horas de carga lectiva): 0,30 puntos | - Lizentzia-tituluagatik: puntu 1<br>- Doktore-tituluagatik: puntu 1.<br>- Master-tituluagatik (600 eskola-ordu baino gehiago): 0,80 puntu<br>- Graduondoak (250 eskola-ordu baino gehiago): 0,60 puntu<br>- Graduondoak (gehienez 250 eskola-ordu): 0,30 puntu |
| 2.2. Cuando no guarden relación directa con las funciones propias pero sí con el área de actividad de los puestos de trabajo que se solicitan: | 2.2. Eskatzen diren lanpostuen berezko funtzioekin zuzeneko harremanik ez dutenean baina lanpostuen jarduera-arloarekin badutenean: |
| - Por el título de Licenciatura 0,60 punto<br>- Por el título de Doctor: 0,40 puntos.<br>- Por el título de Master (de más de 600 horas de carga lectiva): 0,20 puntos<br>- Postgrados (de más de 250 horas de carga lectiva): 0,10 puntos<br>- Postgrados (de hasta 250 horas de carga lectiva): 0,05 puntos | - Lizentzia-tituluagatik: 0,60 puntu<br>- Doktore-tituluagatik: 0,40 puntu.<br>- Master-tituluagatik (600 eskola-ordu baino gehiago): 0,20 puntu<br>- Graduondoak (250 eskola-ordu baino gehiago): 0,10 puntu<br>- Graduondoak (gehienez 250 eskola-ordu): 0,05 puntu |
| **3.- Cursos de formación y perfeccionamiento.** | **3. Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak.** |
| 3.1. Por la superación de cursos de formación y perfeccionamiento, que versen sobre materias directamente relacionadas con las funciones propias del puesto de trabajo (relación directa con las actividades a desarrollar en el puesto que se solicita, o en el área de actividades de los mismos o área de conocimientos), en los que se haya expedido diploma y/o certificación de asistencia y/o, en su caso, certificación de aprovechamiento o impartición se otorgará hasta un máximo de cinco puntos (5), con arreglo al siguiente Baremo:<br>- 0,012 puntos por hora de cursillo recibido. | Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak gainditzeagatik, lanpostuen berezko funtzioekin zuzeneko harremana badute (zuzeneko harremana eskatzen den lanpostuan, haren jarduera-arloan edo haren jakintza-arloan egin beharreko jarduerekin). Nahitaezkoa izango da diploma edota bertaratze-ziurtagiria aurkeztea edota, hala badagokio, aprobetxamendu- edo emate-ziurtagiria. Gehienez bost (5) puntu emango dira, baremo honen arabera:<br>- 0,012 puntu jasotako ikastaroko ordu bakoitzeko. |

| | |
|---|---|
| Dividiéndose el apartado de cursos recibidos en 2, en función de la materia de la que versen. Los cursos recibidos se imputarán a los apartados indicados a criterio de la Comisión en función de la intensidad del curso y la preparación que requiera a juicio de la Comisión:<br><br>3.1.1 Cursos de formación y perfeccionamiento sobre materias directamente relacionadas con las funciones del puesto, hasta cinco puntos (5)<br><br>3.1.2. Cursos de formación y perfeccionamiento que sean de informática de usuario y gestión, hasta cinco décimas (0,5).<br><br>3.2. Únicamente se valorarán los cursos recibidos en los diez (10) años anteriores a la fecha de la convocatoria.<br><br>Serán objeto de valoración los cursos de formación o perfeccionamiento organizados por Entidades del Sector Público, Escuelas de Administración Pública (IVAP, INAP, IEAP u otras Escuelas de Administración Pública) y Centros Oficiales siempre que el certificado de asistencia o de impartición estuviera expedido por los mismos.<br><br>A estos efectos se entenderán como Centros Oficiales, las Universidades, los Centros dependientes del Ministerio de Educación o Departamentos de Educación de las Comunidades Autónomas y Cámaras de Comercio o Colegios Oficiales.<br><br>No serán objeto de valoración los cursos impartidos por academias privadas, ni los que se refieran a asignaturas de Planes de Estudios Oficiales de Facultad o Escuela, o módulos de másteres o postgrados.<br><br>Sólo en relación con los cursos de informática, se valorarán todos independientemente del centro que los haya impartido, ya sea público o privado.<br><br>3.3. Cuando en el certificado no se acredite la duración de los cursos se entenderá que cada uno de ellos ha tenido una duración de una hora, salvo que de la documentación aportada | Jasotako ikastaroen atala 2tan banatuko da, jorratzen duten gaiaren arabera. Jasotako ikastaroak batzordearen irizpideei jarraiki adierazitako atalei egotziko zaizkie, ikastaroaren intentsitatearen eta batzordearen ustez eskatzen duen prestaketaren arabera.<br><br>3.1.1. Lanpostuaren funtzioekin zuzeneko harremana duten gaiei buruzko prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, gehienez bost (5) puntu.<br><br>3.1.2. Erabiltzaile- eta kudeaketa-informatikari buruzkoak diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak, gehienez bost hamarren (0,5).<br><br>3.2. Deialdiaren dataren aurreko hamar (10) urteetan jasotako ikastaroak soilik balioetsiko dira.<br><br>Sektore publikoko erakundeek, administrazio publikoaren eskolek (HAEEk, HAINek, HAEIek edo administrazio publikoaren beste eskola batzuek) eta ikastetxe ofizialek antolatutako prestakuntza- edo hobekuntza-ikastaroak balioetsiko dira, baldin eta horiek emandako bertaratze- edo emate-ziurtagiria aurkezten bada.<br><br>Horretarako, unibertsitateak, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeak eta merkataritza-ganberak edo elkargo ofizialak joko dira ikastetxe ofizialtzat.<br><br>Ezin izango dira balioetsi akademia pribatuek emandako ikastaroak, ez eta fakultate edo eskolako ikasketa-plan ofizialetako ikasgaiei edo master edo graduondoetako moduluei buruzkoak ere.<br><br>Soilik informatika-ikastaroei dagokienez, denak balioetsiko dira, eman dituen ikastetxea kontuan hartu gabe, publikoa zein pribatua izan.<br><br>3.3. Ziurtagirian ikastaroen iraupena egiaztatzen ez denean, bakoitzak ordu bat iraun duela ondorioztatuko da, salbu eta emandako agiriek (programek, iragarkiek, etab.) iraupena argi eta |

| | |
|---|---|
| (programas, anuncios, etc.) se desprenda inequívocamente su duración. | garbi jakinarazten badute. |
| 3.4. En concordancia con lo dispuesto en el número anterior la valoración mínima que se puede otorgar a un curso será de 0,012 puntos. | 3.4. Aurreko puntuan xedatutakoarekin bat etorriz, ikastaro bakoitzari eman ahal zaion gutxieneko balioespena 0,012 puntu izango dira. |
| 3.5. Los cursos sobre materias obsoletas o sobre leyes derogadas, o relativos a programas o materias en desuso no serán objeto de valoración. | 3.5. Zaharkituta dauden gaiei buruzko edo indargabetu diren legeei buruzko edo jadanik erabiltzen ez diren programen edo gaien inguruko ikastaroak ez dira balioetsiko. |
| **4.- Antigüedad**<br>Se otorgará hasta un máximo de 5 puntos, con arreglo al siguiente baremo:<br>- Por cada año completo de servicio en las distintas Administraciones Públicas en el subgrupo de clasificación A1 o equivalente: 0,50 puntos por año. Los servicios que no completen el año se valorarán por meses proporcionalmente.<br>A estos efectos se computarán los servicios prestados con anterioridad a la adquisición de la condición de funcionario de carrera y con carácter previo al ingreso en el Cuerpo o Escala expresamente reconocidos. No se computarán servicios que hubieran sido prestados simultáneamente con otros igualmente alegados. | **4. Antzinatasuna**<br>Gehienez ere 5 puntu emango dira, baremo honen arabera:<br>- Administrazio publikoetan A1 sailkapen-azpitaldean edo baliokidean zerbitzuan egondako urte oso bakoitzeko: 0,50 puntu urteko. Urtea betetzen ez duten zerbitzuak hilabeteka balioetsiko dira, proportzionalki.<br>Horretarako, karrerako funtzionario bihurtu baino lehen eta kidegoan edo eskalan sartu baino lehen emandako zerbitzuak, berariaz aitortuak, zenbatuko dira. Orobat alegatu diren beste zerbitzu batzuk aldi berean eman badira, horiek ez dira zenbatuko. |
